



ZARAUZKO UDALA
HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Kaixo:

Zarauzko Udalak uztailan eta abuztuan UDALEKU IREKIAK antolatzen ditu, haurrek udan ere aukera izan dezaten euskaraz bizi eta ondo pasatzeko.

Covid19 dela-eta, funtzionamendu egoki baterako, higiene eta segurtasun neurri dagokienez, haurrek ekintzan parte hartu ahal izateko, osasun-agintariek emandako jarraibideak, aholkuak eta neurriak bete beharko dituzte. Bestalde, programak ere aldaketak jasan ditzake, COVID-19ak eragindako egoeraren arabera osasun-agintariek emandako aholkuei jarraituz.

Udalekuetan adin-tarte honetako haurrek har dezakete parte: Lehen Hezkuntzako 1. eta 6. maila artekoek (biak barne).

Izena ematean beste lagun baten izena jar daiteke; gero udalekuko taldeetan hori errespetatzen ahaleginduko gara.

Udaleku Irekiak uztailaren 1etik 30era eta abuztuaren 1etik 13ra izango dira astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Ekintzen jarraipena egokia izan dadin, **parte-hartze jarraitua** eskatzen dugu.

Elkarbizitza edo lankidetzako arauak behin eta berriz ez betetzea, udalekua uzteko arrazoia izango da.

IZEN-EMATEA	<i>maiatzaren 3tik 10era (biak barne)</i>
ORDAINKETA:	<i>maiatzaren 13tik 20ra</i>
GURASO BILERA:	<i>ekainak 23an</i>

PREZIOAK	
Uztaila	86,35 €
Abuztua	43,20 €

IZEN EMATEA: <https://labur.eus/Tpr4h>

Besterik gabe, jaso ezazue agur bero bat.